

KONTU KONTARI

XABIER SOUBELET ARTISTA ETA GIZONA

Duela hamalau bat urte, nire familiarekin batera, Lapurdira bizitzera etorri nintzenean, bertako gizartean integratzeko euskalduna izatea, hau da euskaraz egitea, aski zela nekarren buruan. Berehalaxe ikusi nuen ez zela aski. Lapurtarrek izugarri maite dute kantatzea eta dantzatzea, eta hori ere, guztiz beharrezkoa zela ikusi nuen. Hori dela eta, Urruñako gure etxetik gertuen zegoen euskal elkarte bilatu nuen, eta horrela, Donibane Lohizuneko **Begiraleak** elkartean izena eman nuen. Hasieran mutxikoak ikasi nituen, eta geroxeago kantu saioetara ere joaten hasi nintzen. Bertan biziki jende interesgarria ezagutu nuen. Horietako bat elkarteko arduraduna zen Xabier Soubelet ziburutarra.

Egia erran behar badizuet, Begiraleak elkarte, aurretik ezagutzen nuen eta banekien dantzari on eta trebeen harrobia zela, baita Telesforo Monzon bera elkarteko antzerki taldean ibilia zela ere. Baina ene erreferentzia bakarrak euskal prentsatik jasotako berriak ziren.

Urteak igaro dira, fite eta azkar. Nik Iparraldean ez dut nire burua lekuz kanpo inoiz ikusi. Bat gehiago izan naiz beti. Bertako euskaldunek biziki harrera polita egin digute beti, bai niri eta

bai familiako beste guztiei ere. Semeak, ttiki-ttikitatik Begin aritu dira, dantzari eta txalapartari gisa. Gaur horretan segitzen dute. Hasieratik adiskidetasun handia eskaini ziguten eta adiskidetasun horrek ate guztiak zabaldu dizkigu. Orduz geroztik, Xabierrekin izan ditudan harreman estuek berarekiko miwesmena handitu didate. Hori dela eta, burutu dut esku artean duzuen honako idazlantxoak. Hauxe da, bada, Abitxuren (lagun artean ematen diogun izena) biografiari egiten diodan ekarpen ttikia.

Xabier Soubelet Laskibar, 1953ko maiatzaren 20an sortu zen Lapurdiko itsas-hegiko Ziburu herrian. Aita lapurtarra zuen, Ziburukoa, eta ama, berriz, gipuzkoarra, Tolosakoa. Horrez gain, bere familiak bazituen erro sakonak Baztanen eta Iruñea aldean. Hori dela eta, Xabierrek bere sortze mundua Baztanen kokatu izan du beti. Bost urte zituelarik, ama haurdun gelditu zen hirugarren aldiz. Baina patu txarrak eraman zituen, bai bera, eta bai barruan zeramatzan bi neskatilak, bi urte lehenago hildako beste neskatilaren herio-bideari jarraiki. Heriotza hauek izugarri kolpatu zuten Xabier eta eragin handia izan dute bai bere izakeran eta baita bere bizimoduan ere. Aita armadorea zen, eta emaztearen eta alaben heriotza lazarriak gertatuz geroztik, buru-belarri sartu zen bere negoziotan, semeaz nolabait ahantziz. Baionako barnetegi batean sartu eta bertako hezitzaileen esku utzi zuen neurri handi batean, baita Baztanen zuen bataioko amatxiren eta izebarenetan ere. Orduz geroztik, Baztanek eragin ikaragarri handia ukan du Xabierren izakeran eta baita bere sorkuntzan ere. Berak bere burua definitzeko orduan, Lapurdiko baztandarra dela dio. Sustrai ugari eta sakoneko gizona dugu, beraz, iturri aunitzetatik edandakoa, baina, denbora berean, autodidakta. Haurtzaroan eta gaztaroan, amaren aldeko familiaren sentimendu abertzale sutsuak bere euskalduntasuna eta bere abertzaletasuna suspertu eta bideratu zituen betiko. 1976tik aitzina Iparraldean jazotako gertaera sozio-politikoek sentimendu horiek areagotu zizkieten. Hauxe dena, hagitz argi azaltzen zaigu iaz, hau da, 2007. ur-

tean, Maiatz argialetxearen eskutik, kaleratu zuen **Oroitzirriak** izeneko liburu ederreko pasarte biografikoetan.

Ibilaldi pertsonal berezi honek errotik markatu zuen gizona. Alde batetik, betidanik izan da mugaren bi aldeetan, naturaltasun osoz, bizi izan den euskalduna. Iparraldean Iparraldekoa izan da eta Hegoaldean Hegoaldekoa. Hau da, hemen eta han euskalduna. Bestaldetik, bizikera berezi horiek hiru hizkuntzen jabe izatera eraman dute, eta euskaraz gain, frantsesez eta espainolez ere ederki mintzatzen da. Euskal Herria izan da beti bere etxe naturala, bere habia eta baita bere aberria ere. Baztanen baztandarra da, Lapurdin lapurtarra, Gipuzkoan gipuzkoarra eta Iruñean sanfermindar amorratua. Halaber, sentiberatasun berezi baten jabe egin da. Izatez alaia eta kanporakoia bada ere, barne-barnean sarturik daraman bakartasun sentimendu batek bortizki kolpatzen du, eta horrela uler ditzakegu bere baitan izaten diren gorabeherak. Ironia, umorea, eta baztertuekiko kontzientzia bizi dira Xabier Soubeleten nortasunean nabarmen azaltzen diren beste ezaugarrietako batzuk. Giza antolamenduaren aldetik, elitismoa gorroto du eta kultura herrikoia maite.

Eta aipaturiko ezaugarriak arrunt nabariak badira Xabierren nortasunean, oraindik nabariagoak dira sortzen dituen obretan. Azter ditzagun orain, lapurtar polifazetiko honek jorratutako sorbideak:

1.- **Xabier margolari:** Duela hogeita hamabost bat urte tindatzen hasi zen Baztanen eta Arizkunen duen **Sasternea** izeneko etxean bere estudioa finkatu zuen. Bertan dauka bere margolanen erakusketa iraunkorra. Prozesu luzea ukan duen arren, gaurko estiloa espresionismora hurbiltzen da. Bere lurrarekiko erreferentziak beti present dira bere koadroetan. Baztan izaten da bere margo-gai nagusia, baina bestelako koadroak ere baditu. Donibaneko itsasoak ere badu bere tokitxo artistaren obran. Abstro figuratiboa dela erran genezake.

2005. urtean, Hendaian finkaturiko Hasier Etxeberria idazleak plazaratu zuen **Mutuaren hitzak** izeneko eleberrian, beste pertsonaien artean, Xabier azaltzen zaigu, Arizkunen bizi den Leon Karrika margolariaren izengoitiaren azpian ezkutaturik. Idazleak izugarri ongi irudikatu du Xabierren izaera, batez ere, bere barneko bakardade hori.

2.- **Xabier idazle:** Betidanik izan du bere ideiak, bere gogoe-tak eta bere sentimenduak paperean idazteko joera. Idazlanak sinatzeko orduan, gehienetan, **Xubiltz** izengoitia erabili du. Idazteko duen joera emankor horren fruitu dira egin dituen ipuin, saiakera, abesti eta olerki ugariak. Horietako asko **Maiatz-en** eta **Hatsaren Poesia-n** kaleratu ditu. 2007an, lehen aipatu dudan **Oroitziirriak** liburu zirrargarria kaleratu zuen Maiatz-en eskutik, eta 2008an bi liburu eman zituen argitara: Hiria argialetxearen bidez kaleratutako **Bizil eta oldar** olerki liburu autobiografikoa eta Elkar-en bidez plazaratu zuen **Izotze-tik izanera** izeneko erdi saiakera erdi eleberri estetiko esperimentalala. Azken liburu honetan euskararen sorreraz duen kezka asebetetzen saiatu da. Haatik, bere idazlanak ez dira hiru liburu hauetara mugatzen, gauzaturik edo gauzatzeko bidean dauden beste obra zenbait argitaratzeko txandaren zain baititu. Euskara errotik maite du, eta honen sustraiak aztertzen urte luzeak eman ditueuz gero, bere idazlanetan beti azaltzen dira ikertze prozesu horren berri ematen diguten aztarnak. Horretaz gain, aho-korapiloak, zentzu anitzeko esapideak, hitzen musikalitateari jarraiki burututako perpausak eta desagertutako adizkera trinkoak, behin eta berriro, erabiltzen ditu bere testuak exotismoz eta ukitu hermetikoaz ziprztinduz.

Bere luma, aski azkarra eta ironikoa da, umore handikoa, anabasa itxura duen mezu ongitxo egituratua daukana, bai olerkigintzan eta bai prosan. Niri, bere garaian izugarri miretsi nuen beste lapurtar baten estiloa dakarkit burura, Mark Legasserena,

hain zuzen ere. Zoritxarrez Legassek ez zen gauza euskaraz idazteko, eta Soubeletek, berriz, maisukiro erabiltzen du Axularren hizkuntza. Dena den, esan dezadan Soubeleten obra poetikoagoa dela Legasserena baino. Irakur dezagun orain, adibide gisa, **Bizil eta oldar** liburu ederretik ateratako olerki bat.

Tobera

Tobera, minbera, oihu ta hotsa.
Turuta, zintzarrots eta galarrotsa¹
Ni aditzeagatik pasa baldin lotsa,
erauntsia bihurtuko zaik ortotsa.

Hik baituk zinez merexi
nahiz eta altxatu hesi,
Ezin duk egin ihesi,
otoitz iezaiok Jesusi.

Tori eta toma!
Hau ez duk Erroma,
are gutxiago broma,
Jehova edo Mahoma

Ez nauk inolaz damutzen,
denak bortizki ditiat popatik hartzen
eta zuen bizi kaxkarra inarrosten,
Lapolitezak² zaituztelako alutzen.

Utz nauzue bakean jaunak.
Utz salatzen bihotzeko esanak.
Gorrotoa libre duk, ez aztarnak.
Itzul zaretenei, so! doihukagu Pitxu ta Kabanak³

¹ Sinonimoak

² La politesse, euskara ez egiteagatik aitzakia bihurtzen dena.

³ Maskaradetako pertsonaiak

Zuek denei argiki kondenak,
 zuei aduanak, sotanak, ordenak.
 Denei birjinak, burdinak, pirañak edo laminak.

Bainan zinez dena berdin zait
 altzemeirrak piztu dit "the light"⁴.
 ez bihurtzeko ni ere copyright,
 zuei kantatzeko ta gare jotzeko alait,
 egiteko irain eta trufa zonbait.

Buka ez dezadan jaso dut agintze.
 Aitortu behar ditut oraino hainbeste.

Lagun, adiskide, ez uste
 egonen naukela triste.
 Desatena ez diat ere maite.
 Txarrenetatik izan liteke
 neure burua ez baitiat libre,
 besteei toberan aritzeko ere.

Bainan halere :

Izorra hadi

Hi, les rois⁵ de la Frantzi,
 de l'Españi, de là et d'ici⁶.

Izor hadi bainan har zak kasu handi
 eta buruz belarri adi zak ongi, adi :

Hau ez da Asia, hau ez da Japonia, redios!
 Ez eta Kanbodia, Flipin ala Vietnam, san dios!
 Ez gara Burkina Fason, hau ez da Angola ala Laos.
 Gure herria da, Euskal Herria, gurea, mikrokosmos.
 Denak ezagun baikara, bildots, lanjeros, espos, amoros, kurios
 eta serios.

⁴ Argia ingelesez

⁵ rregeak

⁶ Hemen eta hangoak

Izor daitezen ta egia adi, bide ene harrabots.
Tobera, gaueta, turuta, zingarrots eta galarrots
Nori kanta behar gau honetan pasa dezaten lots?
Hiri alua! Barka gaixuei, egurra gaiztoei, txotx!
Maltzur eta faltsuei kantua eta bi sos.

Oihu, buila, kanta, bertsu, irain, kolpe, zauri, hori da egi.
Hau ez da manifa, liteke oldartegi.
Jauntxoak ixilik, muturik, begiak itxirik segi.
Zozoek hor dute kiroldegi, rikar eta rugbi.
Garbitegi, arditegi, Teve Pays⁷ ta arlotegi.
Guretzat, aldiz, amildegi, presondegi eta arroztegi.
Dena behar irauli, hitzez eta oihuz, oldarki.

Tobera! Hau ez duk sobera!
bainan hobe orain uztea nere jarrera,
nahiz eta ez minbera,
hori diat nik barneko afera.

-«Allo? Bai? Zer? Diga?
Zer? Bai zera! Politika?»

Eta atzetik gabatxo eta gallego orok gaiztoki:
« -Me non, le Pays Basque n'est pas avec lui...»

Eta gainera -« Il n'a pas la majori»⁸

« -Ke si, el pueblo vasco quiere l'autonomi»

“-Onbre, bizi gara en demokrazi...”

Y Navarra nunca dira ke si.“

“Ostia euskaldunek darraite gorri eta xuri...”

“-Puten, Jainkotzat hartu dute errege Louis...”

Nomejodas⁹, idolotzat Bi gol, Juan Karl eta Xofi!“

Ez da hala! Beharrik! Ezin irentsi eta ezin sinetsi:
Ez, ez euskaldunek maite dituzte ere kiwi eta zainzuri,

⁷ Iparraldeko telebista katea.

⁸ Frantziako hautes-legearen gehiengo sistemaren arabera, bakarrik %50 dutenek hitza daukate.

⁹ Ne deconnes pas. Ez iezadazu harpa jo.

whisky eta uzki,
 enbido eta iduki, segurki.
 Bainan, batez ere, bisturi,
 egiteko harakiri.
 Aluak ere dantzan ditut ikusi,
 kantuz baintuen denak han atzo nik utzi.

Ez dukela ulertzen? Ez duk zaila, uri!
 Ukapenez diotenek oui, nespa eta merci¹⁰
 Erderaz desatenek yo soy del mundo, es asi.
 Kondaira 1512an hasten dutenek lasaiki.
 Iraintzen gaituztenek esanez: nazi mas que nazi!
 Hala dira gauzak aujour'hui¹¹
 Ermuko forua eta biktimak nagusi
 -"Baskoignes, vive la France et la République aussi"
 Ukazioa dugu modan, por aqui ta par ici.

Lurdeko lorea ama paregabeak txuri du azala
 Gure toberaz leze barnetik otoizka bedeinka gaitzala
 Ta Ama Puyk¹² santifikatuta betiko utz nazala,
 denak barka diezazkidala,
 ni ez bainaiz Atila,
 ezta ere Pakito edo Argala¹³,
 bainan gorrotoa ez dut apala,
 gorrotoari gorroto baitagokiola.
 AT! Madrileko zapat ero ala zapat hila,
 Zaharkozi, Segolene, Xirak ala edozein urde zakila.
 Utz gaitzatela bakean! Euskal Herria ez dago isila!
 eta jarraituko geroan askatasunaren bila!

Gaizki esanei kanta!Neri ere tobera egin diezadatela!
 Bainan zuei Ferry, Robespier, Isabel eta Fernando, apaingela!

¹⁰ N'est-ce-pas, ez da hala?

¹¹ Gaur

¹² Lizarrako Ama Birjina

¹³ ETAKo buruzagi ohiak

Zuri frantximent, españolazo eta euskalu, bainu eta garbigela!
Zuri banketxe, espetxe, dorretxe, putetxe, ikasgela!
Zuei Jainko, Jehoba, Mahoma ta Alha, eskela!
eta ahantzi ditudan guziei otoitza eta kandela!

3.- **Xabier kantari , kanta-egile eta bertsolari:** Musika da maite duen beste zaletasun artistikoetako bat. Txistularia da, txalapataria, kitarraz lagundurik kantatzen du, eta gainera sentimendu handiko abestien egilea daukagu. Bere olerki aunitz musikatuak ditu, hirurogei bat osora. Begin ez dago parrandarik, edota lagun-girorik, Abitxuren kitarraren soinurik gabe.

Bestalde, hitzaren arloa izugarri maite duenez gero, ezin izan du bertsolaritza jorratzeko tentaziotik aldendu. Berak tabernako bertsolaritzat jotzen du bere burua. Donibaneko eta inguruko beste zenbait herritako ostatueta eta festetan ohiko bertsolaria daukagu.

4.- **Xabier irakasle:** Lanbidez euskara eta arte ederretako irakaslea dugu Donibane Lohizuneko Santo Tomas Lizeoan. Euskara eta sorkuntza dira arlo honetan jorratzen dituen alorrak. Gazteekiko harremana eta konpromisoa sakon erroturik dauka bere baitan. Baionako barnetegian emandako urteetan garatutako bakardade sentimenduak zerikusi handia du gazte berezi edota baztertuekiko erakusten duen atxikimenduan.

5.- **Xabier begirale:** 1970. urtetik Donibaneko Begiraleak elkarreko bazkidea da eta azken hamar urteak bertako lehendakari-tzan eman ditu. Hasiera-hasieratik bide ugari zabaltzen ahalegindu da elkartaren barruan. Hori dela eta, gaur egun, Begin, dantza taldea, dantza herrikoa, kantua, euskal sukaldaritza, musika herrikoa, txalaparta, eta bertso eskola jorratzen dira, erreferentzia beti euskal kultura eta euskal nortasuna direlarik.

7.- **Xabier abertzale:** Gazte-gaztetik, bere euskalduntasunak eta bere euskaltzaletasunak abertzaletasunera eraman zuten.

Eta arlo honetan ere bere konpromisoak hartu ditu. Ohiko hautagai abertzalea izan da Donibane Lohizuneko alkatetzarako. Aurreko legealdian, eta Lizarra-Garaziren ildotik abiatu, indar abertzale guztiak biltzea lortu zuen. Oraingoan ere, indar abertzaleak bildu dituen **Euskal Herria bai koalizioko** auzapez-gai izan da, eta nahiz eta Alliot Marie-ren aldekoak irabazle atera diren, abertzaleek aski emaitza onak lortu dituzte. Gainera, legealditik legealdira, abertzaleen eta euskaltzaleen bozka kopurua gorantz doa Donibanen.

Gizon honek baditu ere, jorratu dituen bestelako sorbideak. Hizkuntzalaritza izugarri gogoko du, eta hori dela eta, euskararen sorburuari eta egitura bereziari buruz egin dituen gogoetak maiz azaltzen dira bere idazlanetan, olerkietan zein hitz-lauzkoetan. Horrez gain, lehen aipaturiko **Izotzetik izanera** liburuan horretaz aritzen da sakon ikuspegi plastiko estetiko esperimental batetik abiatu. Liburu honen luze-zabalean eta proposaturiko tesia bultzatzeko asmoz, **alizia** izenez bataiatu duen hizkuntza paraleloa asmatu du. Telebistan ere, urrats zenbait eman ditu, Maite Barnetxe hil zenean, Xabier beste bi lagunekin batera, France 3 telebistarako **“Hemendik”** eta **“Gure egunak”** izeneko telesailak egiten aritu baitzen.

Badaude bi hitz Lapurdiko baztandar honen izate eta nortasuna laburbiltzeko: euskalduna eta artista. Hala eta guztiz ere, ez dut aitzin-solas hau bukatu nahi, Abitxuren bestelako aldeak aipatu gabe, lehen aipatu ditudan fazeta publiko horiek guztiez gain, badaudelako pertsonalagoak, pribatuagoak, diren beste batzuk, agian sakonagoak, garrantzitsuagoak direnak. Abitxu euskalduna eta artista izateaz gain, pertsona, laguna eta adiskidea delako. Eta horixe da, aurreko guztia bat ere baztertu gabe, nik neuk harengan gehien estimatzen dudana.

Joseba Aurkenerena Barandiaran

Urruñan, 2009ko abenduaren 16an.